



AKTA

2018ko apirilaren 12an Udal Batzarrak buruturiko ohiko saioari dagokiona.

Alkatea eta hamar zinegotzi bildu dira.

Ondorengo akordioak hartu dituzte.

1.- 2017ko azaroaren 30eko eta 2018ko otsailaren 28ko udal batzarretako aktak onartzea.

2.- Gurutze Jubilatu Elkarteak pentsioen inguruan aurkezturiko mozioa onartzea bertaratutako hamar korporakideren aho bateko adostasunarekin.

3.- 2018ko aurrekontua, plantila organikoa eta lanpostuen zerrenda.

Bertaratutako hamarretik aldeko sei zinegotzien adostasunarekin, eta lau zinegotzien kontrako botoarekin:

Lehena.- 2018ko ekitaldirako Udal Aurrekontu proiektua onartzea.

Bigarrena.- Aipaturiko Aurrekontua jendaurreko erakusketan jartzea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean dagokion iragarkia argitaratu eta hamabost lanegunetako epean aztertu eta egoki jotzen diren zuzenketa eskaerak aurkeztu ahal daitezen. Aipaturiko epean erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, behin-behineko akordioa behin betikotzat hartua izango da erabaki berrien premiarik gabe.

Hirugarrena.- Zestoako Udalaren lanpostuen zerrenda eta plantila organikoa onartzea.

4.- Udal argiteri publikoaren energia zerbitzuak eta mantentze lanak berme osoarekin, hornidura eta zerbitzu kontrato mixto baten bidez, behin betiko esleipena.

Korporazioa osatzen duten hamaika korporakideetatik bertaratutako hamarretatik seiren aldeko botoa eta lauren kontrako botoarekin, ondorengo erabakiak hartu dira:

Lehena.- Zestoako Udal argiteri publikoaren energia zerbitzuak eta mantentze lanak berme osoarekin hornidura eta zerbitzu kontratu misto baten bidez behin betiko esleipena TECUNI S.A. enpresari esleitzea 1.167.740,00 euro gehi BEZ 245.225,40 zenbatekoagatik.

Bigarrena.- Esleipena, parte hartu duten enpresei jakinaraztea.

Hirugarrena.-Kontratatzaillearen profilean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Europako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Laugarrena.- Alkatea ahalbidetzea kontratua sinatu eta beharrezko tramiteak egitera.

5.- Batela 1991 S.L.k aurkezturiko Sansinenea-Erreka poligonoko A.1-12 partzelari dagokion xehetasun azterketaren behin betiko onespena.

Gerturatutako aldeko hamar botoekin, beraz, legezko kideen gehiengo osoarekin, ondorengo erabakiak hartu dira.

Lehena.- “Zestoako herri plangintzako Arau Subsidiarioetako Sansinenea-Errekako A1.1-12 partzelaren Xehetasun Azterlana”-ri behin betiko onespena ematea.

Bigarrena.- Interesatuari erabakia jakinaraztea.

Hirugarrena.-Ekainaren 30eko 2/2006 Lurzoruaren eta Hirigintzaren Legearen 89.3 artikulua dioenaren arabera, Gipuzkoako Foru Aldundiko Planeamenduko Erregistrora kopia bat bidaltzea.

Laugarrena.- Ekainaren 30eko 2/2006 Lurzoruaren eta Hirigintzaren Legearen 89.5 artikulua dioenaren arabera, hartutako erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta lurralde historikoan hedadura gehien duen egunkarian edo egunkarietan ere argitaratzea.

6.-Urola Erdiko Mankomunitateko Zuzendaritza Batzordeak proposatu duen Estatutuen aldaketa ontzat ematea.

7.- Galdera eta erreguak.- Ez da egon.

Zestoan, 2018ko azaroaren 23an

IDAZKARIAK,

O.e.
ALKATEAK,